

PLAZA **B**ERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

19-10-1 29. ALEA

Batzordeen
deialdiak

2. ORR. ►►

Loatzo gertutik
ezagutzen

8. ORR. ►►

Jaiak
argazkitan

11. ORR. ►►

Udal
berria,
lehen
urratsetan

4. ORR. ►►





Batzordeen deialdiak legealdi berriaren hasieran

Batzordea Comisión	Eguna Día	Ordua Hora	Lekua Lugar
Kirol Batzordea Comisión de deporte	Urriak 1 de octubre	19:00	Atxulondo kultur etxea
Kultura eta euskara batzordea Comisión de euskera y cultura	Urriak 3 de octubre	19:30	Atxulondo kultur etxea
Parekidetasun batzordea Comisión de igualdad	Urriak 8 de octubre	19:00	Atxulondo kultur etxea
Parte hartze batzordea Comisión de participación ciudadana	Urriak 15 de octubre	19:00	Plaza Etxeberri eraikinean
Baserritarren batzordea Comisión de agricultura	Azaroak 3 de noviembre	11:30	Iriarte kultur etxea

Udal gobernuak hainbat batzordetako deialdiak egin ditu, berauek indartzeko helburuz.

Batzorde informatzaileak Udal funtzionamenduari motor garrantzitsu direla sinestuta, hainbat deialdi egin dira urrian zehar. "Batzorde

batzuk urteak daramatzate martxan, eta beste batzuk berrabiaraztea da asmoa. Gaienez arabera zerrenda honetan ez daudenak ere deituko ditugu; esaterako, hiritik gintzan gaika bilerak egitea da landu nahi dugun bidea", azaldu du Iker Urruzola alkatetik.

Batzordeak herritarrekin lan egiteko guneak dira, baina, horrez gain, bestelako lantaldeak ere abian jartzen ari

direla argitu du Urruzolak: "Merkatariekin, adibidez, agindu genien, eta lehen bilerak egin berri dugu. Gure asmoa da maiztasunez biltzea, hartu eman zuzena izatea eta urratsak ematea elkarlanean, merkataritza txikia ezinbestekoa dugulako". Gauza bera egin ohi da herritarren ikastetxeekin ere. Udal gobernutik herritarrei batzordeetan parte hartzea deia egin nahi zaie.

Llamamiento a participar en las comisiones en la nueva legislatura

El objetivo del gobierno municipal es reforzar las comisiones informativas que son el punto de encuentro entre los y las zizurkildarras y el ayuntamiento. "Son una herramienta

básica para el funcionamiento del consistorio. Algunas comisiones llevan años funcionando, y queremos reactivar otras; en otras áreas como urbanismo, convocaremos

reuniones sobre iniciativas concretas", explica el alcalde Iker Urruzola. En esta tabla se detallan las comisiones que se han convocado para las próximas semanas.

Azoka berezia iritsi da 22.ediziora

Aurten urriaren 13an egingo da. Gipuzkoako Harri Txiki Txapelketa jokatu da arratsaldean.



Zizurkilgo jai egutegian erabat txertatu dago jada urriko azoka berezia. Urriaren 13an izango da aurtengoa, igandez, aldaketa batzuekin. "Nekazaritza eta janari postuak, Teodoro Hernandorena kalean egon ohi direnak, goizez soilik egongo dira. Ikusten genuen arratsaldean apenas saltzen zutela, eta luzea egiten zitzaiela", azaldu du Maite Amenabar kultura zinegotziak.

Aldiz, frontoiko eskulangileei goiz eta arratsaldez egoteko aukera emango zaie. Azokak, 10:30etan irekiko ditu ateak.

Bazkaria eta herri kirolak

Zizurkilgo azoka azken urteetan saiatzen da haurrentzako ekimenak antolatzen. Eguraldia lagun bada, puzgarriak izango dira eta tailerrak goizez, eta arratsaldez pottoketan ibiltzeko aukera ere izan

Azoka berezia, el 13 de octubre

La 22 edición de la feria especial de Zizurkil contará con los ingredientes habituales y alguna novedad. "Tras la valoración de los últimos años, los puestos de baserritarras y alimentación, que suelen estar en la calle Teodoro Hernandorena, sólo estarán durante la mañana; los y las artesanas del frontón, en cambio, seguirán estando por la mañana y a la

tarde", explica la concejal Maite Amenabar. La feria abrirá sus puertas a las 10:30. Además de los puestos, habrá actividades para niños y niñas, comida popular, y ya por la tarde, herri kirolak, con el campeonato de levantamiento de piedra de Gipuzkoa. Como es habitual, el ayuntamiento pondrá autobuses gratis desde Elbarrena hasta herrigunea.

go da. Bazkariari dagokionez, azken urteetako bideari jarraitu zaio. "15 eurotan jarri da, salda eta urdaiazpikoa, paella, postrea, kafea eta txupitoarekin. Zimiterioan izango da eta, ohi bezala, ahal den neurrian azokako produktuak erabiliko dira

bazkaritarako", azaldu du Amenabarrek. 18:30ean, aldiz, Gipuzkoako Harri Txiki Txapelketa ospatuko da, eta, ondoren, txakolin dastaketa egingo da. Egun guztian zehar, gaueko 21:00ak arte, autobusak ibiliko dira herrigunetik Elbarrenara.

Urriaren 3an hasiko da asteroko azoka estalpean

Estalpea egin osteko asmoetako bat zen Zizurkilen asteroko azoka baten aukera aztertzea. "Gorabehera eta data saltsa ibili dugu, baina, azkenean, aldeekin hitz egingo da, ostegun goizetan egitea

erabaki da. Hasieran postu gutxirekin hasiko gara, baina pixkanaka indartzea da asmoa" azaldu du Iker Urruzola alkateak. Fruta postu bat, fruitu lehorrak, bakailao postu bat, eta herriko ba-

serritar batekin hasia da asmoa. "Goizez izango da, 09:00etatik aurrera, ostegunero. Bertan parte hartu nahi duen orok izango ditu irekita gure ateak, eta herritarrei ere, noski, bertaratzeke deia egin

nahi diegu", azaldu du Urruzolak.

El 3 de octubre comenzará el mercado semanal

Era una de los objetivos tras realizar la cubierta de la plaza. Según explican desde

el consistorio, comenzará con unos pocos puestos, pero con el objetivo de ampliar la oferta

próximamente. El mercado estará abierto los jueves, a las 09:00 de la mañana.



“Batzordeak indartzeko saiakera egin nahi dugu eta herritarrei parte hartzeko deia egiten diet”

Iker Urruzola Aizpuruak (Zizurkil, 1976) lehen hilabeteak ditu alkate. Egokitzeko hilabeteak izan direla aitortuta, herriko aktualitateaz eta aurrera begirako lehen asmoez hitz egin du Plazaberrirekin.

Hiru hilabete bete berri dituzu alkate. Nolakoa izaten ari da egokitzapena?

Bertigorik gabe sartu naiz: kideen babesak eta aurretik ere paper artean urte batzuk lan egin izanak laguntzen du. Baina, noski, gauza berri asko daude, eta askotan gauzak patxadaz pentsatzeko denborarik ez dago, egunero sortzen direlako eskari berriak. Beraz, Udaleko aspektu ezberdinez jabetu eta buruan tetrisa osatzeko lanean gabilta, ahalik eta erantzun egokienak emateko herritarrei. Lan giro aldetik kexarik ez dut: egia da orain arte udaletxearen

egoitza nagusian gehiago aritu behar izan dudala, eta Udal bulegoetako langileekin harremana sendotzea dudala epe motzeko helburua. Dena den, aurretik zinegotzi izandakoak taldean izateak ere asko laguntzen du egokitzen horretan. Eta herritarrekin ere bikain, bakoitza bere arazoekin etortzen zaizu, eta hori normala da.

Zerbaitek harritu al zaitu?

Harritu baino gehiago, frogatu egin dut lehendik susmatutakoa; alegia, ezin dela zuk nahi duzuna egin zuk nahi duzun denboran. Beste era bate-ra esanda, ametsak errealitate bihurtzeko bidea malkartsua dela. Hirigintzan, esaterako, zerbait egin nahi duzu, baina beste erakunde asko sartzen dira jokoan, askotan azken hitza dutenak, eta Udalaz gaindiko legeak, oztopoak... Ez da erraza eta aspektu asko hartu behar dira kontuan.

Jaiak igaro berri dira; herriko bi jai nagusietan ikusi zaitugu ekintzetan parte hartzen. Alkate zarela ezberdin bizi izan dituzu?

Aurrez ere parte hartzen nuen jaietan. Herriguneko edo goikoetan, orain arte erraldoien konpartsako kide gisa aritu izan naiz batez ere. Aurtun modu berean parte hartzen jarraitu dut, baina, era berean, alkate izanda, Udaletik ahal dena errazteko lanean ere aritu naiz. Elbarrenako jaiak, berriz, niretzat kuttunak dira, eta alkate kargutik egun batzuk libratu nintzen, sinadura eta zeregin nagusiak alkate ordearen gain utziz. Nik azken urteotan bezala parte hartu eta gozatu ditut: Festa eder-rak izan direla esango nuke. Agian, hori bai, jendearen zureganako begirada da aldatzen dena, alkate ikusten zaituztelako une oro, eta normala da hori ere.

El comienzo de una nueva etapa en el ayuntamiento

Iker Urruzola Aizpuru es el alcalde de Zizurkil desde el pasado 16 de junio. En esta entrevista desgana algunos de los temas de actualidad y cuenta su experiencia hasta ahora. Afirmo que se está ade-

cuando a sus nuevas labores: “Es importante la ayuda de concejales con experiencia: Tenemos un buen ambiente de trabajo, y mucha información que interiorizar sobre la realidad de diferentes aspec-

tos del ayuntamiento. Además, no hay tregua: todos los días te encuentras con nuevas peticiones o problemas que resolver”.

Fiestas, valoración positiva

El alcalde ha realizado una valoración positiva de las dos fiestas principales del municipio, en las cuales ha participado activamente: “Hay que agradecer la labor de las



Elbarrenako jaien egitaraua euskara hutsez izateak polemika sortu du...

Lehenik, argitu behar da, Zizurkilen, zorionez, bi festa batzorde ditugula, autonomoak direnak eta, beraz, bertan parte hartzen dutenek hartzen dituzte festen inguruko erabaki guztiak. Hori horrela izan

da azken urteetan, EH Bildu Udalean zegoenean eta EAJ zegoenean ere bai, eta guretzako altxor bat da herritarrek festa antolatzea, euren baino hobeto ez duelako inork egingo, eta hori delako benetako parte hartzea. Udala baliabideak jartzeko eta laguntzeko dago, eta hemendik eskerrak

eman nahi dizkiet festa batzordeko kideei eta herritarrei bertan parte hartzeko deia egiten diet.

Hori esanda, polemika sortu egin nahi izan dutela esango nuke Udalaren aurka jotzeko helburu hutsagatik. Batzuenetzako edozein aitzakia baliagarria da besteari min egiteko,

«Ahal den azkarren ireki nahi genuke Plaza Etxeberri jatetxea baina ondo irekitzea da garrantzitsua»

hori ikasi dut kasu honekin. Euskara horrela erabiltzeak min ematen du. Gauza puztu nahi zela ikusita, egoera baretzeko neurriak hartu ditugu Udaletik, eta, zorionez, ez du gero festetan inolako eraginik izan gaiak. Uste dut gehiengo handi batek ondo ulertu duela kontua. Guk, Udalaren aldetik, aurrera begira gogoeta lasaia bultzatuko dugu batzordearekin. Argi dago euskararen normalizazio bidean urrats gehiago eman behar ditugula; hala jasotzen du, gainera, udalbatzak aho batez onartua duen euskararen normalkuntza planak ere. Hori egiteko formula egokiena bilatzen saiatuko gara, beti ere, festa batzordeen autonomia zaindu beharrekoa dela argi eta garbi utziz.

comisiones de fiestas, que son el verdadero pilar para su consecución. Han sido unas fiestas participativas que han discurrido en buen ambiente". En cuanto a la polémica por haber utilizado únicamente

el euskera para el programa de fiestas de Elbarrena, Urruzola ha querido explicar un par de aspectos: "Por un lado, las comisiones de fiestas trabajan de manera autónoma, y son las que toman las deci-

siones relativas a las fiestas; el ayuntamiento pone los recursos disponibles a su alcance. Es un valor incalculable que haya zizurkildarras dispuestas a organizar sus fiestas; eso ha sido así en las últimas década-

das, y debemos mantenerlo. Por eso, no hemos entendido las críticas interesadas hacia el ayuntamiento; pero no quiero ahondar en ello. Afortunadamente, al final las fiestas han transcurrido con total norma-

«Errepidean egiten ari diren lanek eragin-dako arazoek argi utzi dute jasotzen dugun trafikoa ikaragarria dela, eta sai-hesbide bat ezinbestekoa dela Zizurkilentzat»

Plaza Etxeberriren erosketak izan da 2019ko aurrekontuen inbertsio nagusia. Abuztuko jaien ostean itxi zuten jatetxea. Zein da Udalaren plana?

Bi norabideetako plana da. Batetik, jatetxea berriz martxan jartzeko deialdia egin da, baina ez da inor aurkeztu. Galdezka etorri direnak izan dira, eta gure plana da eurekin hitz egitea, ikustea zein baldintza den eurentzat egokia ez dena eta horren arabera deialdi berria egin. Guk argi dugu beste

jatetxe bat izateak herriguneari lagunduko liokela, baina, era berean, ez dugu eraikin horren etorkizuna hipotekatu nahi, herritarrekin egin nahi dugun prozesua baita guretzako funtsa, gune hori herritarrentzat irabazi dugulako; bi gauzak uztartu beharko ditugu. Beraz, ahal den azkarren nahiko genuke jatetxea ireki, baina ez dugu itsu-itsuan egin nahi, ondo egitea da garrantzitsuenena.

Bestetik, parte hartze batzordean hasiko gara lantzen Plaza Etxeberriren erabilera erabakitzeko parte hartze prozesua; epe motzeko eta luzeko lanak zehaztu nahiko genituzke prozesu horretan, bide orri bat markatu. Lan potolo eta polita dugu aurrean.

Hainbat batzorderen deialdia egin da Plazaberri honetan (2.orria) Zer esango zenieke herritarrei?

Agindu genuen bezala, batzordeak indartzeko saiakera egin nahi dugu, eta azken finean, herritarren esku dago herriko ekimen handi eta txikiak erabakitzeko guneetan parte hartzea. Herria denon artean egitea da bidea, guk ardura

ofizialak ditugu baina ondoen elkarrekin egingo dugu. Oposizio alderdiak ere deituak izaten dira batzorde horietara, eta gune interesgarriak dira elkarlanerako. Beraz, lasai etortzeko eskatuko nieke.

Udalaz gaindiko pare bat galdera ere bai... Errepideen konponketek inguratuta pasa ditugu azken hilabeteak, eta aldi berean, udalbatzatik zein herri plataformatik sai-hesbidearen eskaera hor dago...

Gipuzkoako Foru Aldundiarren kudeaketak kezkatzen gaitu. Lehenik, Villabonako Sacemgo zubiko lanen (Legarreta zubia izen ofizialez) inguruko informazioa lortzeko modua ez da onargarria izan. Lanak egitear zeudela elkartu ziren Zizurkilgo Udalarekin, eta aurreneko hitzak izan ziren ez zutela pentsatzen lanek Zizurkilen eraginik izango zutenik. Hori entzunda aho bete hortz geratu ginen. Eta horri lotuta, aldi berean hasi dira Bulandegitik Adunarako bidea konpontzen. Alegia, Zizurkilgo bi sarrera naturalak erdi itxita egon dira aldi berean

hainbat eta hainbat hilabetez. Uste dugu beste era batera egin zitekeela.

Eta gertatu dena sai-hesbidearen eskariarekin lotu nahiko nuke. Argi geratu da beste behin egunero dauden ilarekin Zizurkilek zer trafikoa jasotzen duen, trafikoa astun asko tartean, eta ibilgailu horien ehuneko handi bat Asteasuko industriagunera doa. Egoera hau oztopo bat da Zizurkil garatzeko, osasunarentzako sekulako kalteak ditu, eta herri izaera bera mugatzen du. Sai-hesbideak garai berri bat irekiko luke Zizurkilentzat, udalbatzak urteak daramatza eskaera horrekin, eta jarraitu behar dugu ezinbestean, baina argi utziz ez dela erraza izango. Momentuz Aldunditik ezezkioa argia da, eta horri aurre egingo beharko diogu.

Laster hasiko diren beste lanak Renfeko geltokikoak dira...

Bai, hala jakinarazi digute. Epe motzean hasiko dira eta pozgarria da, irisgarritasunaren ikuspegitik gaur egungo egoera ez baitzen onargarria. Bi igogailu jarriko dira azpiko

lidad. Trabajaremos con las comisiones para ver el modo más acertado para seguir normalizando el euskera en todos y cada uno de los ámbitos del municipio".

Comisiones participativas

El ayuntamiento ha invitado a sus vecinos y vecinas a asistir

a las comisiones participativas (página 2): "Queremos reforzar las comisiones, que son el punto de encuentro entre zizurkildarras y el ayuntamiento. Hago un llamamiento para participar en ellas, para decidir entre todos y todas el futuro del municipio en distintos ámbitos".

Preguntado sobre las obras viarias que se están realizando tanto en el puente de Sacem como en la entrada principal del municipio desde Aduna a Bulandegi, Urruzola critica que desde la Diputación no se haya tenido en cuenta que las dos principales vías de entrada de

Zizurkil han estado cerradas o casi cerradas: "Las retenciones habidas demuestran el tráfico que sufre diariamente el municipio, tráfico pesado en un gran porcentaje que se dirige hacia el polígono de Asteasu. En otras palabras, la imperiosa necesidad de una variante como llevamos



Ekainaren 15ean hartu zuen Urruzolak alkate kargoa.

pasabidearen albo banatan, eta beste zenbait lan egiteko ere baliatuko da, nolabait esanda, geltokia modernoagoa izate aldera. Udal bulego zaharretan jarriko da Renferen bulegoa bien bitartean, hori ari gara behintzat aztertzen uneotan eurekin.

Beste mezurik eman nahiko al zenuke?

Hondakinen inguruko mezu bat bai. Zizurkildar gehien-go kontzientziatuta dago, eta ondo egiten du; urteotan kontzientziazio kanpaina ugari egin da, udalean zeuden adostasunak ere zabaldu dira zenbait edukiontzi jarritz, baina jende multzo bati berdin zaio. Dena nahastuta lurrera botatzen jarraitzen dute. Udaletik informazioa, laguntza,

kanpainak... egiten jarraituko dugu, baina ezin dugu onartu gutxi batzuk herria zikintzen eta kutsatzen jarraitzea. Herri-tar guztiei esango nieke ingurumena guztion ardura dela, sailkapena guztion etxeetatik hasten dela; gu laguntzeko gaude, baina baita gaizki egiten duena eta arauen kontra ari dena zigortzeko ere. Mezu hori eman nahi nuke.

«Herritar bakoitza bere arazoarekin etortzen zaizu, eta normala da»

reclamando tanto el ayuntamiento como la ciudadanía de Zizurkil”.

Obras en la estación

En las próximas semanas comenzarán las obras en la estación de Renfe: “Son unas obras necesarias ya que mejorarán la accesibilidad con

ascensores que se instalarán a ambos lados del paso subterráneo, junto con otros trabajos. Nos alegramos. En estos momentos estamos negociando con Renfe la colocación de la oficina de la estación en las antiguas oficinas del ayuntamiento, mientras duren las obras”.

Para terminar el alcalde ha querido manifestar lo siguiente sobre el uso de los residuos de una parte de la ciudadanía: “Se han realizado campañas de concienciación e información, se han ampliado los acuerdos en el ayuntamiento, pero una minoría quiere verter la basura mezclada y no

le importa nada contaminar y ensuciar. Seguiremos trabajando: Estamos para ayudar pero también para sancionar al que rompe las ordenanzas y los mínimos exigibles de civismo. Quiero dar ese mensaje”.

Loatzo, 18 urte baina

2002 urtean martxan jarri zen Loatzo musika eskola 4 Udalen bul-tzadaz, tartean Zizurkilgoa. Gaur egun, 8 Udal barnebiltzen dituen mankomunitatea da eta eskaintza zabala du.



Santa Xexili eguneko kontzertua Zimiterioan.

Loatzo musika eskolan ikas-turte hasierako urduritasun egunak dituzte hauek. Miren Mujika da gaur egun Zizurkilgo eskolaren arduraduna. Berarekin elkartu da Plazaberri musika eskolako martxaren eta eskaintzaren berri izan nahian. "Gaur egun, 8 Udalek osatzen dute Loatzo; Zizurkil-gez gain, Aduna, Alegia, Altzo, Anoeta, Ibarra, Irura eta Villa-

bona herriek. Musika eskola ofiziala da, eta, hain zuzen, bere sorreran garrantzitsua izan zen legeztatze beharra zegoela ikusi izana", azaldu du Mujikak. Honela, Jaurlaritzak EAEn ezarria duen ikasketa plana jarraitzen dute. "Ikasleak musika tresna aukera dezake, baina ikasi nahi duen modua ez; hori bai, malgutasunez egiten dugu. Eta garrantzi-

tsua da azpimarratzea musika hizkuntza bat dela, eta haurrek konturatu gabe ikasten dutela".

Adinaren arabera

Loatzo musika eskolaren eskaintza aldatu egiten da adinaren arabera. "4-7 urteko ikasleentzako musika tailer-rrak ditugu; alegia, musika era atsegin batean ezagutzeko aukera. 8 urtetik aurrera hasten dira tresnekin, edo musika hizkuntza eta abesbatzaren aukerak ere badituzte. Eta 13 urtetik aurrera, taldeetan parte hartzen hasten dira. Hel-duentzako edo 13 urtetik gorakoentzako eskaintza zabala da: Musika tresnak, musika hizkuntza taldeak...". Edozein musika tresna ikasi ote daitekeen galdetuta, "eskaera guztiak kontuan hartzen ditugu, eta baita aztertu ere. Esate baterako, aurtan, panderoko ikastaroak izan duen arrakasta ikusita ikasi dutenei pandero

Loatzo, 18 años de educación musical en la comarca

"Loatzo musika eskola es una mancomunidad conformada por 8 ayuntamientos. Además del de Zizurkil, lo completan los municipios de Aduna, Alegia, Altzo, Anoeta, Ibarra, Irura y Villabona. Es una escuela oficial de música, en euskera. La necesidad

de reglar la escuela fue lo que impulsó la creación de Loatzo en 2002", explica Miren Mujika, responsable de la escuela Loatzo en Zizurkil.

La oferta varía según la edad. "Ofrecemos talleres de música para niños y niñas entre 4 y 7 años; es decir, una

oportunidad para conocer la música en un modo lúdico. A partir de los 8 años comienzan con instrumentos, o hay opción de escoger lenguaje musical o coro. A partir de los 13 años, participan en distintos grupos de la misma escuela. La oferta a partir de

los 13 años es muy amplia: instrumentos, distintos grupos, lenguaje musical...", detalla Mujika. Eso sí, las inscripciones se realizan en mayo para poder organizar todo debidamente para el siguiente curso.

ara musikan hezten

taldea egiteko aukera zabaldu diegu". Hori bai, izena eman nahi duena berandu dabil. Izen-ematea beti maiatzean egin behar izaten dugu. Ekainerako antolaketa zein den jakin behar baitugu: Irakasleon jardunaldiak, kontratazio berriak.....musika eskola publikoa da, eta honek antolaketak handia eskatzen du".

Musika tresnen bilakaera ez da gizartetik salbu dagoen aspektu bat, eta beraz, modak eragina du. "Bai, egia da modek eragina dutela tresna aukeratzeko orduan. Triki eta gitarra dira azken urte hauetan eskaera gehien dituzten tresnak. Hala ere, haizezko tresnen joera ere indartzen ari dela dirudi. Tresna batzuk beharrezkoak ditugu, ordea, orkestra eta banda mantendu nahi baditugu. Sokak indartzea (bibolina eta biolontxe-loa) ere gure lehentasun dira.

Atxulondo, gune nagusi

Zizurkilen 90 ikasle inguru izan ohi dituzte azken urteotan, gutxi gorabehera. Atxulondo kultur etxea da Loatzoko musika eskolako gune nagusi-

sia. "Atxulondon ematen ditugu tailerrak, musika hizkuntzak, tresna gehienak... badira, ordea, ikasle eta irakasleen artean adostutako eguerdiko ordutegi batzuk ere Otaño ikastetxean eta Iriarten. Kasu hauetan tresna ikasleak eraman behar izaten du, eta, horregatik, tresna guztiekin ezin da. Azken urteetan lan handia egin da tresna guztiak Zizurkilen ikasi ahal izateko, eta une honetan Zizurkilen ikas daitezkeela esan dezakegu", nabarmendu du Mujikak. Hori bai, Atxulondo kultur etxean dagoen mugimendua batzutan gehiegizkoa da musikarentzat. "Aretoa sarri entsegu bat egitea ezinezkoa da, nahiz eta kultur arduradunak gogotsu saiatzen diren guztia antolatzen".

Ekintza ugari

Loatzoko musika eskolak ekintza ugari egiten ditu urtean zehar. "12 urtetik aurrera bandara, orkestrara, eskusoinu, triki, txistu, dultzaina edo gitarra taldera, talde instrumentaletara edo ganbara taldeetara doaz ikasleak.

Talde horiek 8 herritako ikasle osatuak dira, eta hori da aberatsena. Taldeak ez dira herri batenak baizik eta 8 herrienak. Horrek ematen dio izaera Loatzoko musika eskolari. Herrian, Zizurkilen, Xexili eguna, Gabon kontzertua, inauterietako eskolen kalejira, entzunaldiak, Otañoarekin elkarlanean bertso eskola eta musika eskola emanaldia, ikasturte amaierako entzunaldiak, herrigunean kalejira, Elbarrenako jaietan... eta eskatu zaizkigun ekintza puntualetan parte hartzen dugu. Beti prest agertu gara ahal dugun neurrian eskaerak erantzuteko".

Txikitatik, hobe

Miren Mujikak argi du musikak garrantzia handia duela haurren heziketan. "Musika bizipen bat da, eta gure egunerokoan lagungarri. Haurren heziketan garrantzitsua. 4 urterekin jolasen bidez sentitzen dute. Tailerra azpimarratu nahiko nuke, izugarri nabaritzen baitaio haur bati tresna hartzen duen unean. Tailerreko lanketa (ohartu

«Musika hizkuntza bat da eta hurrek nahi gabe ikasten dute»

gabe egiten den hori) oinarria da. Gonbidatu nahiko nituzke gurasoak hurrekin tailerra zer den eta zer egiten dugun ikustera". Baina hori bai, hurrei soilik ez, helduei ere egin die Loatzora etortzeko deia. Azken urteetan, helduen izen-ematea asko igo da. "Zizurkilen ere 9 ikasle heldu baditugu. Horiek ere musika hizkuntza ikasten dute tresnarekin batera. Esaterako, helduek, jubilazioa hartzeko aukera dutenean, bizitza berrantolatu behar dute, eta musika ikastea beti da osasungarria. Asko disfrutatzen dute aukeratutako tresnan abestiak jotzeko gai direla ikusten dutenean eta jendarean jotzeko gai izatean, zer esanik ez!! Edozein adin ona izan daiteke musika tresna bat ikasi, lagun artean jo, abestu....uneak disfrutatzeko!!". Loatzon zabalik daude horretarako ateak.

Atxulondo, edificio principal

En Zizurkil hoy en día cuentan con 90 estudiantes. "La mayoría de los instrumentos se imparten en Atxulondo, y los talleres de música, lenguaje musical... También hay opción de estudiar algunos instrumentos al

mediodía en la escuela P.M. Otaño o la casa de cultura Iriarte, siempre que el alumno o la alumna pueda traer el instrumento musical. Hoy en día podemos decir que en Zizurkil se pueden estudiar todos los instrumentos de nuestra oferta". No todo

se hace en el interior; Loatzoko realiza distintos conciertos durante el año. "Tenemos orquesta, banda, grupos de acordeón, trikitixa, gitara... a partir de los 12 años se unen a dichos grupos que están formados por alumnos y alumnas de los 8 municipios.

En Zizurkil ofrecemos el concierto de Navidad, la kalejira en carnavales, Santa Xexili, kalejira en Zizurkil goia...".

Guztiontzako festak egin nahian

Festa batzordeak, Udala eta zenbait herritar jaien inguruko lanketa egiten ari dira aste hauetan, ikuspuntu feminista batetik.



Festa berdinzaleagoak izatea helburu hartuta, uda aurretik abiatu zen prozesua, festa batzordeetako kideek eta zenbait elkarte eta norbanakok parte hartzen dute ekimenean: "Farapi elkartek gidatzen duen prozesua da, ikerketak egin ohi dituen

elkarte bat da, eta Euskal Herri osoan esperientzia dute festak aztertzen. Helburua da festak guztiontzat jai egunak izatea, alegia, baztertzailleak diren ekitaldiak identifikatzea, eta baita sakonago begiratzea ere. Ekitaldietan zeintzuk parte hartzen duten, eta zein diren ikusle, emakume/gizon banaketaz gain, ea beste kolektiboei begira ere inklusiboak ote diren... Azken finean, begirada bat landu jaiak guztiontzat izan daitezen", azaldu du Matti Navas udaleko berdintasun zinegotziak.

Behaketa zuzena

Oinarri bat izateko, aurtengo bi jaietan behaketa zuzenaren metodologia erabili da: "Ekitaldiak behatu ditugu bereziki gizon eta emakumeen banaketarik ba ote dagoen erreparatuz, bakoitzak zer rol duen...

Orain ondorioak ateratzeko garaia da".

Dena den, aurtengo jaietan ere egin dira zenbait ekimen: "Protokoloa martxan dago duela zenbait urtetik eta urtero lanketa bat egiten da bi jaietan. Gainera, Martxoaren 8aren harira taldetxo bat osatua dugu Zizurkilen, eta Elbarrenako jaietan talde hori arduratu da protokoloaren berri zabaltzeaz eta beste zenbait ekimen egiteaz. Neska gazteagoak ere etorri dira eta pozik gaude." Horrez gain, emagin taldeko kideak izan dira bi egunetan Elbarrenan puntu more gisa. "Balantze baikorra egin dute Zizurkilen jaso dutenaz, jendea hurbildu zaie, bereziki gazteak eta neskak, baina baita mutil batzuk ere. Kontzientziazioan sakontzeko bidea da". Jai berdinzaleagoen bidea urratsez urrats egiten delako.

Trabajando por unas fiestas más igualitarias

Con el objetivo de realizar una radiografía de las fiestas, se están realizando talleres coordinados por la asociación Farapi, asociación experta en estudios sobre la igualdad y las fiestas. En dichos talleres participan las dos comisiones de fiestas

y algunas personas de asociaciones relacionadas con las fiestas, además de representantes del ayuntamiento. "El objetivo es que las fiestas sean inclusivas. Es decir, identificar los actos que son discriminatorios para una parte de la sociedad, y pro-

fundizar más en ese aspecto: ¿Cuál es el rol de los hombres, cuál el de las mujeres, si dicho acto festivo es inclusivo para otros colectivos...", explica la concejal de igualdad Matti Navas.

Para trabajar con una base, en las dos fiestas se ha rea-

lizado un seguimiento a distintos actos mediante la observación directa: "Ahora es el momento de analizar los resultados y trabajar sobre ellos". En definitiva, seguir dando pasos en el camino a unas fiestas más igualitarias e inclusivas.

ARGAZKI BILDUMA

2019ko jaiak, argazkitan

Plazaberrik sei argazkitan herriguneko zein Elbarrenako jaietako ekitaldi batzuk bildu ditu



Oilasko biltzaileek dantzaldia eskaini zuten herriguneko jaien lehen egunean.



Bertsolariek ilargipean eskaini zuten aurten saioa Plazaberrin.



Herriguneko jaietan lehen aldiz, herri bazkaria egin zen arrakastarekin.



Bukalai dantza taldeak txupinazoa botatzeaz gain emanaldia eskaini zuen Elbarrenan.



Zirika Zircus taldeak txiki eta handiak gozarazi zituen Aurrera plazan.



Erraldoi eta buru handien kalejira ekimen jendetsua izan da beste urte batez.

MANUEL ERASUN



“Pilota eskola sendotzen ari da osterera ere”

Ez da geldirik egotekoa Aian jaio baina Zizurkilen jaioterrian baino urte gehiago daramatzan Manuel Erasun. Plazaberriren galderei erantzuteko tartea hartu du.

Aiarra edo zizurkildarra?

Biak esan beharko dut jada. Jaiotzez aiarra baina 25 urte baino gehiago daramatzat Zizurkilen bizitzen eta hona bizitzera etorri aurretik ere 17 urtetatik Fraisoron nengibilen, beraz ia 40 urte Zizurkilen jira biraka.

Sega munduan zure lorpenak handiak dira. Txapelketa eta apustu ugari irabazi zenituen zure ibilbidean. Mugarri zein izan dira zuretzat?

Hasierako garaian, 1988an Irazustari Iturriotzen segan jokaturako apustua aipatuko nuke. Ikaragarria izan zen eta mugarri bat nire ibilbidean, zalantzarik gabe. Hortik aurrera, segan bezala aizkoran aritu nintzen, baina utzita ere egon nintzen urte batzuz eta bigarren mugarri gisa 2000ko hamarkadako hasieretan Mitxelenari jokaturako bi apustuak aipatuko nituzke. Denbora batean geldirik egonda horiek irabaztea handia izan zen. Eta amaitzeko 2005ean, adinean aurrera Olasagastiri jokatu eta irabazitako apustua, segan txapela guztiak irabazi nituen urte hartan eta aizkoran ere txukun, bigarren

mailan bigarren geratu nintzen. Niretzat goi mailan uztea garrantzitsua izan zen.

Apustuak mahaian irabazten direla esan izan dute. Horrela al da?

Bai eta ez. Mahaian apustu ona egin dezakezu baina gero entrenamentuetan deskuidatuz gero ez dago zer eginik. Oreka bilatu behar da. Mahaian negoziatzeko txarra eginez gero ere oso zaila da apustua irabaztea. Mahaian saiatu behar duzu ahal dela ez galtzen.

Kirola erabat utzita duzu?

Goi maila bai, baina jarraitzen dut gazteei laguntzen. Orain ere gazte bati laguntzen ari naiz apustu bat egin duelako segan eta aizkoran, eta haren arrimuan, aritzen naiz ni ere bietan. Egia esan, Aiara, anaiaren baserrira sarri joaten naiz eta segan aritzea oso gustuko dut oraindik ere.

Zizurkilgo alkate ere izan zinen, 20 urte pasa dira. Nola gogoratzen dituzu urte horiek?

Ilusio handiz hasieran, berritigo pixka batekin ere bai. Hilabete gutxitan nik aurrerikusten ez nuen egoera

batean ikusi nintzen baina gogoz lan egin genuela esan dezaket. Ondoren garai gogorak etorri ziren, ilegalizazioa besteak beste, baina oroitzen onatzen dut lau urtetako lanaz.

Herrigintzaren beste alor batean, azken urteetan Zizurkilgo Ziotza pilota eskolan buru belarri ikusi zaitugu... Gustura egin dakoarekin?

La ezerezetik sortu behar izan genuen pilota elkarte eta egia esan ibilbidea ikusita pozik egoteko moduan gaude. Ni neu oso pilotazalea izan naiz beti. Zorte ona izan nuen, guraso talde ona elkartu ginen inguruan eta pilotari onak ere atera dira. Gustatzen zait gaztetxoekin ibiltzea, gurasoekin hartu emana, kirolaren kultura sanoa transmititzea...

Zein da gaur egungo egoera?

Herri txiki hauetan ohikoa den bezala, baxualdia izan zuen elkarrekin baina gaur egun berriz badatoz, alebin mailan esaterako talde polita dago neska eta mutil, eta oso pozgarria da. Datozen urteei begira pilota eskola sendotzen ari dela esan genezake.

Jon semeari aholkuak ematen dizkiozu?

Aholku faltarik ez du baina berak ere jada ondo daki zer egin behar duen. Azken urtea gogorra izan du, ondo hasi zen baina gero lesioak eta... dezente sufritu dugu etxean. Goi mailako kirolak horrelako gauzak ere baditu eta orain badirudi egoerari buelta ematen ari zaiola eta ea hala den.

Esaiguzu...

Zizurkilgo pertsonaia bat? Pantxikaneko Pilar hil berria. Ni Zizurkilera etorri nintzenetik beti esku zabal gogoratzen dut, herritarrentzat beti bere sukaldako atea irekita zeuden, emakume goxo eta apala zen.

Txoko bat? Zizurkil goia edo herrigunea. Oso gustorara eta lasai bizi naiz bertan.

Zer eskatuko zenuke Zizurkilen? Zizurkil goian etxebizitza falta dagoela esango nuke, eta horrekin batera elkarrekin herritarrek bilduko dituen ondo legoe.

B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak,
Ernio Bidea 9A, beheko,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.